

PRACTICUMARI BURUZKO ARAUDIA

AURKIBIDEA

| | |
|--|----|
| 1. SARRERA | 3 |
| 2. IRAKASKUNTZARAKO ESTRATEGIA | 3 |
| 3. PRAKTIKA KLINIKOAREN AGENTEAK | 4 |
| 4. PRACTICUMEN DESKRIBAPENA | 4 |
| 5. PRAKTIKA KLINIKOEN ARAUAK | 8 |
| 6. EBALUAZIOA | 11 |
| 7.PRAKTIKAK-BAIMENA ESKATZEKO EREDUA | 11 |

1. SARRERA

Ikasgai hauek osatzen dituzte tutoretzapeko praktiken moduluak: Zaintzarako praktiketako hastapenak, eta Practicum I, II, III, IV eta V (92 ECTS, guztira).

Araudi honek Gradu eta Graduondoko Ikasketen arloko errektoreordearen eta Ikasleen eta Enplegagarritasunaren arloko errektoreordearen 2019ko ekainaren 24ko Ebazpena betetzen du, zeinaren bidez onartzen baita UPV/EHUko ikasleen kanpoko praktika akademikoen arautegia, 2019ko uztailaren 12ko Gobernu Kontseiluan onartua.

Nahitaez bete beharreko Europako zuzentzarauk eta Espainiako legeriak baldintzatzen dute Erizaintzako graduco practicuma, lanbide arautua baita erizaintza.

- 44/2003 Legea, azaroaren 21ekoa (Lanbide Sanitarioen Antolamenduari buruzkoa, 7.2 a) artikulua; 2003ko azaroaren 22ko BOE 280. zk.)

- Europako Parlamentuaren eta 2005eko irailaren 7ko Kontseiluaren 2005/36/EE Zuzentaraua

- CIN/2134/2008 Agindua, uztailaren 3koa (2008ko uztailaren 19ko BOE).

Practicumeko kreditu guztiak presentzialak izango dira, azaroaren 8ko 1837/2008 Errege Dekretuan araututakoa betetzeko. Hor agertzen denez, Erizaintzako Graduoko ikasleek praktika asistentzialeko 2.300 ordu egin behar dituzte.

Komeni da ikasleek practicumeko irakasgai bakoitzean matrikulatzeko gidetan bildutako betekizun akademikoen berri jasotzea.

2. IRAKASKUNTZARAKO ESTRATEGIA

Practicumeko irakasgaietan erabiltzen den ikaskuntza-metodologia arazoak konpontzeko metodo zientifiko baten aplikazioan eta gogoeta-praktika batean dago oinarrituta. Metodo horrek eskemak eta estrategiak progresiboki barneratzen laguntzen die ikasleei, epe ertainean erizaintzako profesional gogoetatsua izatea ahalbidetzeko. Ikasleak izan behar dira ikaskuntzaren protagonista, eta ikaskuntza hori era aktiboan partekatu beharko dute unibertsitateko tutorearekin edo instruktorearekin (zentroko tutorea) eta ikaskuntza praktikoan laguntzen duen erizaintzako taldearekin.

Praktiken planteamendua erizaintzako ikasleari eskainitako arreta individualizatuan oinarritzen da. Hark, unibertsitateko tutorearekin edo instruktorearekin (zentroko tutorea) elkarlanean, ikaskuntza-helburuak ezartzen ditu, Practicum bakoitzean ezarritako gaitasunak, bere beharrak eta praktika-unitateek eskainitako jarduerak aintzat hartuta.

3. PRAKTIKA KLINIKOAREN AGENTEAK

- **Ikasleak** eurak, ikasketaren arduradunak direlako eta era aktiboan parte hartzen dutelako kompetentzien garapenean eta etengabeko ebaluazio-prozesuan.
- **Instruktoea (zentroko tutorea)**: praktiketan parte hartzen duten zentro kolaboratzaileetako erizaintzako profesional bat da, prestakuntzako jarduerak antolatzeko ardura duena Unibertsitatearekin elkarlanean.
- **Unibertsitateko tutorea (irakasleak eta ikertzaileak)**: zentro kolaboratzaile batean praktika akademikoak egiten ari den ikaslearen jarraipena egiteaz eta ikasleari laguntza emateaz arduratzen den irakaslea da.
- **Osasun-arloko profesionalak**: ikasleek praktikak egiten dituzten unitateetan lan egiten duten erizaintzako profesionalak dira. Zainketa kudeatzeari eta emateari dagokionez, ikaskuntza zuzena eta etengabea erraztea eta zentroko tutoreari ikaskuntzaren bilakaeraren berri ematea da haien ardura.

4. PRACTICUMEN DESKRIBAPENA

Erizaintzako Graduuko titulurako, 2010eko ikasketa-planaren arabera, sei practicum ezarri dira, honela banatuta:

- 1. maila: Zaintza-jardueraren hastapenak (PH) 6 Kreditu
- 2. maila: Practicum I (PI) 12 kreditu
- 3. maila: Practicum II eta III (PII eta PIII) 8 eta 12 kreditu
- 4. maila: Practicum IV eta V (PIV eta PV) 30 eta 24 kreditu

Eskolarteko Gradu Batzordean hartutako eta 2015eko ekainaren 25ean EHUko Gradu eta Berrikuntzako Ikasketetako errektoreordeak onartutako akordioaren arabera, ikasleak eskakizun hauek bete beharko ditu: Plera sartu ahal izateko, Zaintza Jardueraren Hastapenak irakasgaia gaituta eduki behar du; PII eta PIIIra sartzeko, PI gaituta eduki behar du eta PIV eta PVera sartzeko, Practicum II eta III gaituta eduki behar ditu, baita eskakizuntzat jotzen diren ikasgaiak ere.

Gasteizko EUEk praktika-ibilbide bat ezarri du, kompetentziak garatzeko aukera ematen diena ikasleei. Praktika-koordinatzailearen ardura da ikasleak practicumetan banatzea, ibilbidearen arabera.

Zaintza-jardueraren hastapenak: ikasleek ospitalizazio-unitateetan, kanpo-kontsultetan, lehen mailako arretako unitateetan eta zentro soziosanitarioetan egingo dituzte praktikak.

Practicum I, II eta III: ikasleek bi errotazio (bi practicum) egin beharko dituzte ospitalizazio-unitate bakoitzean, eta beste bat unitate komunitarioan edo arreta soziosanitarioan.

Practicum IV (IV1 eta IV2) eta V: ikasleek hiru errotazio egingo dituzte, bat ospitalizazio-unitatean, beste bat zerbitzu-unitate berezian eta bestea unitate komunitarioan. Unitate komunitarioan praktikak egin dituzten ikasleei hautaketa anitza emango zaie.

GASTEIZKO EUE-KO PRACTICUMAREN IBILBIDEA

| PRACTICUM | IBILBIDEAK PI-II-III | | |
|--------------------------|--|---|--|
| P I-II-III | Ospitalizazio Unitatea | Komunitarioa edo Arreta soziosanitarioa | Ospitalizazio Unitatea |
| | Ospitalizazio Unitatea | Ospitalizazio Unitatea | Komunitatekoa edo Arreta soziosanitarioa |
| | Komunitatekoa edo Arreta soziosanitarioa | Ospitalizazio Unitatea | Ospitalizazio Unitatea |
| PRACTICUM | PIV(1)-PIV(2)-PV | | |
| P IV- V | Komunitatekoa/ Hautapen anitza | Ospitalizazio Unitatea | Zerbitzu/Unitate Berezia |
| | Zerbitzu/Unitate Berezia | Komunitatekoa/ Hautapen anitza | Ospitalizazio Unitatea |
| | Ospitalizazio Unitatea | Zerbitzu/Unitate Berezia | Komunitatekoa/ Hautapen anitza |
| Ospitalizazio Unitatea | | Ospitaleetako ospitalizazio-unitateak | |
| Zerbitzu/Unitate Berezia | | ZIU Ebakuntza-gela Hemodialisia Helduen larrialdiak Pediatriako larrialdiak Neonatologia | |
| Komunitatekoa | | Lehen Mailako Arretako unitateak | |
| Arreta soziosanitarioa | | Arreta soziosanitarioko egoitzak eta eguneko zentroak | |
| Hautaketa anitza | | Odol Bankua Arreta soziosanitarioko zentroak Irakaskuntza/segurtasuna eta kalitatea Etxeko Ospitalizazioa AUOko Kanpo-kontsultak Kardiologiako proba funtzionalak Endoskopien gela Erradiologia interbentzionista Medikuntza prebentiboa Lan Osasuna Osasun Mentala Hemodinamika Lehen Mailako Arretako unitateak | |

4.1 Praktiken ordutegia

Praktikak astelehenetik ostiralera egiten dira, goizeko edo arratsaldeko txandan. Ezohiko kasuetan, ikasleek txanda horiek aldatzeko eskatu ahal izango diote irakasle arduradunari.

- Goizeko txanda: 08:00-15:00; esparru soziosanitarioko eguneko zentroetan ordutegia 09:00etatik 16:00etara da.
- Arratsaldeko txanda: 15:00-22:00; arreta komunitarioko zentroetan ordutegia 13:00etatik 20:00etara da.
- Gaueko txanda: 22:00-08:00; PIV eta PVerako bakarrik, unibertsitateko tutoreari eta instruktoreari (zentroko tutorea) eskaera egin ondoren; gehienez, hiru gau practicumeko.

Praktiken ordutegia: nahitaez bete behar da unibertsitatearen eta praktika-zentroaren artean hitzartutako ordutegia. Ikasleek ezin dute unitatea utzi asistentzia-praktiken orduetan. Ikasleek "praktiketako bertaratze erregistroa" aurkeztu beharko dute praktiketako zentroan. Erregistroa instruktoreak edo praktiketako arduradunak sinatu beharko dute

Txanda-aldaketak egin daitezke, betiere unibertsitateko tutoreak eta praktiketako instruktoreak (zentroko tutorea) baimena ematen badute.

Ezin da praktiketako txandarik zatitu. Ezta praktikak igandeetan eta eskola-egutegian ezarritako jaiegunetan egin ere

Txanda ez-estandarizatuak dauzkaten praktiketako unitateetan, ikasleen jarraipenaz arduratzen direnek aztertuko dute zein den praktikak egiteko asistentzia motarik egokiena, ikasketa-prozesua bideratze aldera.

4.2 Praktikak egiteko zentroak

Gasteizko EUEk zentro hauek ditu ikasleen ikaskuntza praktikoetarako:

- Arabako Erakunde Sanitario Integratua. Ospitaleak, lehen mailako arretako osasun zentroak eta AUOko Kanpo-kontsultak
- Quirón ospitalea. Gasteiz
- Arabako Osasun Mentaleko Sarea
- Arabako Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen (GOFE) adinekoentzako egoitzak eta eguneko zentroak
- Vitoria-Gasteizko Udalaren San Prudentzio Adinekoei Laguntzeko Zentro Integrala (ALZI)
- Debagoieneko ESla (Arrasateko Ospitalea eta ESiko osasun-zentroak)
- Santa Marina Ospitalea (Bizkaia)
- Aita Menni ospitalea (Gipuzkoa)
- Mutualia (Gasteiz)

4.3. Gasteiztik kanpo praktikak egin ahal izateko eskakizunak

Ikasleek Gasteiztik kanpo egin ahalko dituzte praktikak:

- 1., 2. eta 3. mailako practicumen bi errotazio.
- 4. mailako practicumen bi errotazio, zerbitzua aldatuta.

Praktikum-etako bat gainditzen ez duen ikasleak, horren berreskurapena Gasteizko zentroetan egin beharko du.

4.4. Praktiketarako unitateak aukeratzea

Kanpoko praktikak arautzen dituen araudiari jarraikiz, praktika klinikoak egiteko destinoak dagokion ikasturteko matrikula-hurrenkeraren arabera aukeratuko dira.

Ikasleek ez dute inolako kontratu-harremanik izan behar praktika-zerbitzuarekin, eta ezingo dute familiakoek edo hurbilekoek lan egiten duten praktika-unitate bat aukeratu. Egoera hori detektatzen denean, praktiketako koordinatzaileak ofizioz aldatuko du unitatez ikaslea.

5. PRAKTIKA KLINIKOEN ARAUAK

5.1. Praktiketako uniforme eta materiala

- Ikaslea uniforme osoa daramala aurkeztuko da praktketan. Hau da:
 - EUEk zehaztutako uniforme, osasun-araudiari jarraikiz: kasaka botoiduna (botoiak alboan), prakak, galtzerdiak eta zapatak (denak zuriak).
 - Prestakuntzako ikaslearen identifikazio-txartela.
- Praktketan, ikasleak itxura egokia izan beharko du (higiene pertsonala), uniforme osoa eta garbia eraman beharko du, eta identifikazioak dagokion tokian egon beharko du.
- Higiene- eta segurtasun-arrazoiengatik, ilea bilduta eraman beharko da asistentzia-zentroetan egon den bitartean, eta azazkalak motz eta margotu gabe.
- Ez dago onartuta klinikaren segurtasuna urratzen duen eraztun, belarrirako luze, eskumuturreko, kate, piercing eta bestelako gehigarriak erabiltzea.

Practicuma egin ahal izateko, nahitaezkoa da uniformeari eta itxura pertsonalari dagozkien arauak betetzea.

5.2 Praktika klinikoetara joatea

- Asistentzia-praktikak nahitaezkoak dira Erizaintzako Graduuko tituluko Practicumaren irakasgaietan matrikulatutako ikasleentzat.
- Ezintasun iragankorreko egoeran dauden ikasleek ezin izango dute asistentzia-praktikarik egin.
- Ikasleek justifikatu eta errekuperatu egin beharko dute asistentzia-praktiketara joaten ez direnean; halaber, horren berri aurretiaz eman beharko diete praktiketako prestakuntzaren arduradunei. Galdutako denboraren % 100 berreskuratu beharko da, ahal dela, larunbatetan eta jaiegunetan, praktikako lanaldiak ez luzatzearen.
- Edozein arrazoiengatik ikaslea unitatetik atera behar bada, praktika-unitateko instruktoreari (zentroko tutorea) jakinarazi beharko dio.
- Praktiketako lanaldian, gehienez, 20 minutuko atsedena hartu ahal izango da.
- Zentroan lan-grebarako deialdia egin bada, zentroetako irakaskuntza-arduradunek ezartzen dituzten jarraibideen arabera jardungo da.

Asistentziari buruz emandako jarraibideak betetzea ezinbestekoa da praktiketako irakasgaiak gainditzeko.

Bertaratzeari buruz aipatutako jarraibideak betetzea ezinbestekoa da praktiketako irakasgaiak gainditzeko. Araudi hori betetzen ez den kasuak praktika-batzordeak baloratuko ditu, diziplina-araubide orokorrean ezarritakoa kontuan hartuta.

5.3. Baimenak eskatzea

Behar besteko denborarekin eskatu beharko zaizkie tutoreari eta praktiketako irakasleari, eta, ahal den guztietan, huts egiteko arrazoiaren ziurtagiria ere aurkeztuta.

▪ ***Baimenak gaixotasunagatik***

Ospitaleko ingresurik gabeko gaixotasuna dela-eta justifikatutako hutsegiteak % 100ean berreskuratuko dira.

Ospitaleko ingresuen kasuan, honela berreskuratuko dira:

- 1-5 ingresu-egun: ez da berreskuratu behar
- 1-6 ingresu-egun: 1 egun berreskuratu behar da
- 1-7 ingresu-egun: 2 egun berreskuratu behar dira, eta horrela gainerakoak

▪ ***Baimenak senideen gaixotasun edo heriotzarengatik***

Heriotza: gehienez ere 3 egun natural emango da odolkidetasuneko 2. mailarainoko senideen heriotzagatik.

Gaixotasun larriagatik, gehienez ere 3 egun balioduneko baimena emango da odolkidetasuneko 1. mailako senideen kasuan, eta 2 egun baliodun 2. mailako senideak direnean.

▪ ***Ikastaro edo biltzarretara joateko baimenak.***

Ikasleek baimenak eduki ahal izango dituzte erizaintzarekin zerikusia duten kongresuetara joateko, betiere aurretiaz eskatzen badiote irakasgaiaren arduradunari, eta asistentzia behar bezala justifikatzen badute. Gehienez ere 3 egun naturaleko baimena emango da ikasturteko.

▪ ***Goi-lehiaketako kiroletarako baimenak.***

Ikasleek kirolerako baimena izango dute, EHUK ezarritako araudia aintzat hartuta.

▪ ***Bestelako baimenak.***

Nahitaezko eginbeharrak betetzeko, behar beste denbora emango da, praktiketako ordutegitik kanpo egin ezin direnean (epaitegiko zitazioa, hauteskunde-mahai batean parte hartu beharra, azterketa ofizialak...).

EUEk ezarritako instantzia-eredua beteko dute ikasleek baimen horiek eskatzeko, eta unibertsitateko dagokion irakasleari emango diote.

5.4. Erantzukizun zibileko aseguruua

Ikasleek jardun-protokoloak bete beharko dituzte istripuak edo intzidentziak gertatzen direnean praktiketan.

Ikasleek erantzukizun zibileko poliza bat dute, eta horrek praktiketako jarduerak estaltzen dizkie.

5.5. Txertaketa

EUEk, Txagorritxuko Ospitaleko Lan Osasuneko Zerbitzuarekin elkarlanean, B hepatitisaren txertoa jartzea aholkatzen die ikasle guztiei, bai eta praktiketako zentroak aholkatutako gainerako txertoak ere.

6. EBALUAZIOA

EHUko Kudeaketa Akademikoko Araudia kontuan izanik, Gasteizko EUEk ezartzen du Praktikumeko irakasgaietan ikasleek ikasturte bakoitzean matrikula bakoitzeko deialdi bakarra izango dutela.

Practicum bakoitza dagokion irakaskuntza-gidan deskribatutako irizpideen arabera ebaluatuko da.

Praktiken % 100a presentziala izango da. Praktiken epealdiari esleitutako denboraren % 50 baino gutxiago egiten duten ikasleei EZ AURKEZTUA jarriko zaie ikasgaiaren aktan. Ikasleak praktikak uzten baditu % 50eko edo gehiagoko epealdi bat bete ondoren, EZ GAI jarriko zaio ikasgaiaren aktan.

Anexo 1

PRAKTIKAK-BAIMENA ESKATZEKO EREDUA

Izen-abizenak / Nombre y apellidos:

NAN / DNI: **Telefonoa** / Teléfono:

Helbidea / Dirección:

Maila/Curso:

Praktikum/Practicum.:

E-mail:

ERAKUSTEN DU / EXPONE:

ESKATZEN DU /SOLICITA :

EGUNAK BERRESKURATZEKO PROPOSAMENA/PROPUESTA DE RECUPERACIÓN DE DÍAS:

Data eta sinadura / Fecha y Firma:

NORI ZUZENDUA/ DIRIGIDO A:

Praktiken irakaleak/ Profesorado de prácticas:

Praktiken Kordinatzailea/ Coordinador de prácticas: